

Eskapo, animalia basatien gisan

**Maidar Iantzi
Goienetxe**

Txaloez idatzi nuen aitzinekoan, gure buruak astintzeko zaplazteko-txaloez. Jada amaitu dira, berrogeialdia arintzen ari da eta lehengora itzultzeko gogoz sumatzen da jendea. Animalia sozialak gara, eta ohituraz funtzionatzen dugu. Hortaz, ez da harritzekoa.

Baina harritzen nau inguruan jendea elkarrengana hurbiltzen ikusteak, mas-kararik gabe, eta haserretzen nau animalia basatiak bezala pertsonengandik eskapo ibili behar izateak. Portalean

antisoziala naizela pentsatuko dute (hori ere izan naiteke). «Atso zaharra!» erranen didate gai berarengatik haserretuko garen hamaikagarren aldian (atso zahar antisoziala, ados). Zutabea honetaz idatziko dudala komentatzean hobe dudala zerbait berria kontatu erranen dit telebistan egunero kontu berak aditzeaz aspertu ez eta, gainera, distantzia hartzea ahanzten zaionak.

Atzentzeko gaitasun ikaragarria dugu, bai, zorionez. Baina erizainak ikusten ditudanean jendarteari zer pasatu

den oroitarazi beharrean, eta mezu baikorra zabaltzen saiatu direla baina beharbada irudi gogor gehiago erakutsi beharko lituzketela aipatzen, mina hartzen dut.

Nazkatu naiz «zu beldurtia zara, baina denek ez dute halako beldurrik» aditzeaz ere, hau guztia izu kontua baltz bezala, eta ez ardura kontua. Denok dugu hemen kontent egoteko gogoia.

Atso zahar antisozial beldurtia izan naiz, bai. Eta gainera astoa bezain tematia. •

«Sexting»

**Xabier Mikel
Errekondo**

Idaztera eseri naizenean zein gairi heldu zalantza nuen, biak ala biak interesgarriak oso, telelana ala *sexting*-a. Idatzi honekiko boterea oraindik nirea denez, bigarrenaren alde egin dut. Ea kilima artetik eta garun hezurra jada laukitu didan telelanaren pantaila beretik zerbait borobiltzen dudan.

Itxialditik bizirik gara aterako, agian, baina bitartean aldizkako harreman sexual haragizkoak giltzarrapopean dizkigute jarri. Ezin elkartu, ezin ukitu... Sexu harremanetarako eta muga hertsiei aurre egiteko formula ezin bestekoa da osagai biko pozoia: ausar-

dia eta irudimena, dosi altuetan. Sexu harremanak praktikatzeko bide bi baino ez daude, arauen barne eta arauetatik at.

Arauen barruan, *sexting*-ak (mezu eta irudi erotikoak partekatzeak) itxialdiak ezarri giltzarrapoa lehertzeko bidea ireki digu gazte zein helduoi eta, bide batez, masturbazioa sexu praktikaren aldare gorenera igo. Baina kontu, sare sozialetan sexua praktikatzek badu eta arriskurik, eta kondoiak ez gaitu libratuko diskrezioak baizik.

Sexualitatea etengabe elikatu beharreko droga dugu, hil artean. Eragin sexuari ordenagailutik, Satisfayer-az edo

zuzeneko harremanean, baina ez ahaztu plazerean tamainak baduela garrantzia... irudimenaren tamainak. Irudimenik gabe tramankuluaren pilak ez du eraginik, ezta geure gorputzak energiarik ere.

Ez naiz ni inor inori ze harreman mota izan esateko, baina nik haragizkoak nahiago parez pare begietara begiratu eta pixelatu gabeak... Ausardia karga guztiarekin, arauetatik at ibiltzek sortzen duen bekatuaren morboa...

Beraz, izan irudimentsu eta jarri zure plazera arau murriztaileen gainetik, edo azpitik, edo albotik, edo... •